



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: *SIN MIEDO*

© Testua: 2014, MANUEL L. ALONSO

© Itzulpena: 2021, IRAITZ URKULO

© Euskarazko argitalpena:

2021, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa. Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk. 48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-52-0

Lege-gordailua: M-28375-2020

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2021eko otsaila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Joseba Etxebarria

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,

Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren
lehengaiak birziklagarriak dira,
eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektualak dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (CentroEspañol de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Beldurrik gabe

Manuel L. Alonso

Azaleko irudia: Elena Odriozola

begiko

*Ez dugu jakinduria besterik gabe jasotzen; guk geuk
bilatu behar dugu, inork gure ordeaz egin ezin
dezakeen ezezagunean zeharreko bidaia batean.*

Marcel Proust

Beste neska-mutilengana hurbildu aurretik ere, Bitorrek bazekien arazoak izango zirela. Betiko moduan.

Auzo hartara iritsi zenetik, kalera irtetea saihestu zuen. Baina uztailaren hasierako goiz horretan, amak bultzatuta, leihotik ikusten zuen plaza txikira joateko ausardia nahikoa bildu zuen. Kalearen zabalguneko soila zen: eserleku batzuk, belar apur bat han-hemenka eta palmondo bat.

Bertan, gutxi gorabehera bere adina, hau da, hamaika urte inguru izango zituzten sei edo zazpi mutil zeuden. Futbolari buruz eztabaidan ari ziren, oihuka.

Bera baketsua zen berez, azal zurbila zuen eta, nahiko ez lukeen arren, begi handiek bere sentimenduak agerian uzten zituzten. Mutil haiek keinu handituak egiten zituzten, eta ahotsa behartzen

zuten, zaharragoak zirelako itxurak egin nahian. Berehala ulertu zuen jolas bortitzekin gozaten zuten horietakoak zirela. Ziur zegoen ez zutela bera gogoko izango.

Aurrera jarraitzeko zorian egon zen, haiengana hurbildu izanaz damututa, baina mutiletako batek dei egin zion:

10 —Aizu! Etorri hona!

Bitorrek gogoratu egin zituen amak minutu gutxi batzuk lehenago esan zizkion hitzak:

—Ezin duzu uda osoa etxean igaro. Irten zaitez, inguru honetan inolako arriskurik ez dago-eta.

Amak arrazoia izatea espero zuen.

Buelta eman zuen astiro. Dei egin zion mutila taldeko altuena zen. Buru erraldoia zuen, eta zezen batenaren moduko lepoa. Bitorrek ziurrenik auzoko harroputza izango zela pentsatu zuen.

—Zer egiten duzu gure eremuan?

Sorbaldak jaso zituen.

—Hemen bizi naiz. Kantoian.

—Espioi bat da, seguru —esan zuen beste mutiletako batek—. Eman diezaiogun merezi duena.

—Nork eman dizu gure kalean ibiltzeko baimena? —galdetu zion lehen mutilak.

—Erakuts iezaiozu nork agintzen duen, Vidal —animatu zuen besteak.

Istant batez, Bittorrek handik korrika alden-tzea pentsatu zuen. Ez zen ideia ona, ordea: bertan bizi zen, eta haiekin topo egingo zuen berriz. Une hartan nola jokatzeko zuen, horren arabera izango zen dena aurrerantzean.

Vidal izenekoak besotik heldu eta bizepsa indarrez estutu zion. Beldurtu nahi zuen, edo probatu.

11

—Espioia zara? Badakizu zer egiten diegun guk espioiei?

—Utzi bakean —eskatu zion Bittorrek.

Ahotsak huts egin zion, beldurraren eraginez. Besteak konturatu eta barrezka hasi ziren. Bittorrek ulertu zuen, miraririk gertatu ezean, haien aurka borrokatu beharko zuela. Eta ez zen batere trebea borrokatzen. Norbaiti min ematearen ideiak gaixo sentiarazten zuen, norbaitek berari min ematearenak bezainbeste. Ezin zuen ulertu nola iruditu litzaiekeen dibertigarria mutil haiei ehiza-txakurren antzera jokatzeko, beldurra igarri orduko eraso egingez.

Vidalek sudurrean jarri zion ukabila, eta gupidarik gabe zapaldu zion. Norbaitek atzetik eutsi zion. Beste batek ostiko bat jo zion belanpean eta, kol-

pearen ondorioz, hankak tolestu zitzaizkion. Gutxi falta izan zitzaion lurrera belauniko erortzeko.

Apenas entzun zuen berarengandik hainbat pausora zegoen norbaiten ahotsa:

—Nahikoa da.

12 Askatu egin zuten. Orduan ikusi zuen burua biratu zutela denek, astiro eta eskuak poltsikoetan zetorren mutilari begiratzeko.

—Zuek guztiok bakar baten kontra. Koldar halakoak! Zergatik ez zarete ni jipoitzen saiatzen?

Ez zen indartsuagoa, ezta zaharragoa ere. Baina mutil haiei aurre egitera ausartzen zen, eta argi zegoen hura ezagutzen zutela. Bitorrek erotuta zegoela eta azkenean biak jipoituko zituztela pentsatu zuen.

—Ez zaitez axola ez zaizkizun kontuetan sartu —esan zion Vidalek.

Iritsi berria lasai zegoen. Ez zituen eskuak poltsikoetatik atera ere egin. Bitorrek zerbait ezkutatzen ari zen susmoa zeukan; labana bat agian. Horrek baino ezin zezakeen azaldu mutil haiei guztiei aurre egiteko ausardia izatea.

—Astindu ederra emango dizugu —esan zion Vidalek, atzera eginez.

—Nahi duzunean.

Bazen beste mutilak ez bezalakoak egiten zuen zerbait. Haren arropak zaharrak ziren, eta zermatzen sandaliek zikinkeria-arrastoak uzten zizkioten oinetan. Ilea larru-arras moztua zuen, eta orbain bat bekokian.

Bittorri keinu bat egin zion, jarrai ziezaion aginduz.

13

Zeharkako kale batetik jo zuten, auzoaren mugetako bat zen errepiderantz. Handik, Bittor itzulnguru bat emanez itzuli ahalko zen etxera.

Minutu pare batez isilean ibili eta gero, mutilak hurrengo zeharkalea seinالاتu zion buru-keinu batez.

—Nik hortik joko dut.

Bittorrek zalantza egin zuen. Ez zekien eskerak eman behar zizkion, halakorik eginez gero mutilak barre egingo ote zion beldur baitzen. Azkenean, hauxe baino ez zion esan:

—Bittor naiz.

Erantzun gisa, mutilak sorbaldak jaso zituen. Berari agur-begiradarik zuzendu gabe, mutil ezezagunak buelta eman zuen eta aldendu egin zen.

Bittor korrika abiatu zen etxerantz.

Sekretu bat gorde duten guztiek bezala, Bittor beldurrez bizi zen.

14 Zaila egingo litzaioke beldur hura hitzen bidez adieraztea, baina erreala eta bizi-bizia zen. Beldur zen norbaitek bere sekretua deskubritu eta gurasoak ordura arte ezagutu uste izan zuten haurra beste norbait bihurtua zela ohartuko ote ziren. Pertsona heldu batzuen begirada sakonegien beldur ere bazen. Eta besteen gogokoa ez izatearen, baztertua izatearen eta barregarri geratzearen beldur.

Batez ere, beste haurren beldur zen. Haur normalen beldur, alegia. Beren burua oihu, mehatxu eta irainen bidez berresten zuten eta borroka egiteko edo haur ahulagoak jazartzeko gai ziren haiena.

Sentitzen zuen beldurra ezkutatzeko, beste norbait zelako itxurak egiten zituen. Besteak imitatzen ahalegintzen zen, eta bere sentsibilitatea eta samurtasun-beharra ezkutatzen zituen. Baina bere buruari ezarria zion hipokrisiak estimua mintzen eta sufrimendu handia eragiten zion.

Artean Bittor ikasi gabea zen denborak gauza guztiak atzean uzten dituela, baita okerrenak ere.

Horregatik uste zuen bere bizitza osoa une txarretan bezalakoa izango zela: beldur betierekoa, lotsa, erantzunik gabeko galderak.

16 Bitorrek nagusitan esploratzailea izango nahi zuen eta bere burua inork zapaldu gabeko oihan eta basoetan barrena imajinatzen zuen.

Aitak itxaropen handirik ez izateko esan zion, dagoeneko ez baitzen esploratu gabeko lekurik geratzen. Aitak Bitorri pertsona heldua balitz bezala hitz egiten zion beti. Haren esanetan, bizitzarako prestatu nahi zuen, bizitza gogorra zelako. Aitzitik, amaren ustez, Bitorrek aurrean bizitza gogorra zain bazuen, haurra zen bitartean ahal bezainbeste mimatu behar zuten.

—Begira zer lortzen ari zaren —leporatzen zion aitak zenbaitetan—: delikatuegia da.

Hitz hark hain doinu mespretxuzkoa zuen aitaren ahoan, Bitor baztertua sentitzen baitzen eta behin baino gehiagotan bere logelari giltzapetu eta bakarrik negar egin baitzuen.

Uda horretan, aurreko hilabeteetan gastatutako diru mordoa zela-eta, oporretan beste norabait joateari uko egin behar izan zioten. Bitorri arratsaldeak amaigabeak iruditzen zitzaizkion. Bakarrik jolastera ohituta zegoen, ordea. Ez zuen anai-arrebarik ez lehengusu-lehengusinarik, eta bere lagun apurrak hiriaren beste muturrean zeuden.

Leihotik kale osoa ikusten zuen, baita plaza txikia ere. Neskak atzera-aurrera zebiltzan, elkarri sekretuak kontatuz eta barre txikiak eginez. Mutilak, aldiz, eserleku baten inguruan biltzen ziren, edo futbolearen aritzen ziren, baloia pertsiaren aurka jaurtiz. Noizbehinka, bazkalondoko lo-kulxkaren unean batez ere, auzokoren bat balkoira irteten zen eta hainbeste zaratarik ez egiteko eskatzen zien. Hipokrisiaz erantzuten zuten, gehiegizko hezieraz, eta auzokoa desagertu orduko burula egiten zioten.

Etxe guztiek altuera bera zuten, lau solairu, plaza txikiaren bestaldean zegoen hamaika edo hamabi solairuko eraikinak izan ezik. Ilea larruarras moztua zuen mutilak bera salbatu eta bi egun geroago, Bitorrek eraikin hartako ataritik irteten ikusi zuen. Harrezkeroztik, harantz maiz begira-

tzen hasi zen, bere lagun ezezaguna berriz ikusteko itxaropenaz.

18 Harengan pentsatzen zuenean, «lagun» hitza erabiltzen zuen. Jakin-minez zegoen, ez baitzuen inoiz beste mutilekin ikusten. Beste auzo batzuetara joaten zen, antza; auskalo nora eta zertarako. Bittorrek esplorazio-bidaian zihoala imajinatzea gogoko zuen, eta egun batean biak elkarrekin joatea ondo legokeela pentsatzen zuen.

Berriz ikusi zuen hurrengo aldian, barne-bultzada bati jarraikiz, atzetik joan zitzaion.

Ohiko kaleetatik urruntzeak pixka bat kezkatu zuen, artean ez zuelako ahaztu aurreko udan beste mutil batekin izandako arazoa.

Siestaren orduan gertatu zen, eguzkiak kiskalitako kale huts batean. Mutil ezezaguna bera baino zaharragoa zen, begirada ilun harroa zuen eta, bere ondotik igaro zenean, Bittorri bereizten ikasi berri zuen modu bitxi hartan so egin zion. Ez zen halakorik gertatzen zitzaion lehen aldia: norbaitek zorrotz begiratzen zion, beraren sekretua asmatzen zuen eta, botere misteriotsu bat bereganatuko balu bezala, hori nahikoa zen Bittorren gaineko nagusitasuna izateko.

Egun hartan, mutil ezezagunak mespretxua, bur-la eta haserrea uztartzen zituen ohiko begiradatik harago jo zuen. Ezer esan gabe, Bittor atari baten barrura bultzatu zuen eta, bertan, lepotik heldu zion.

—Badakit zer zaren —xuxurlatu zion astiro.

Txoko bateraino eraman zuen arrastaka, eta Bittorrek beste edozeri baino gehiago gorroto eta beldur zion hitza erantsi zuen.

19

Ez zen ahalegindu bere burua zorigaitzaren adierazpenetako bat baino ez zen eraso hartatik babesten. Begiak malkoz bete zitzaizkion, baina ez zion errukirik eskatu, gertatzen zitzaizkion gauza txar guztiak ondo merezita zituela pentsatuko balu bezala.

—Jarri belauniko!

Etsita, bihotza ukabil batean sartuta beldurra-
ren eraginez, ezezagunak agindutakoa egin zuen,
hari aurre egiteko ezgauza. Mutil haren mende ze-
goen, etsaiak beraren bizitzaren eta heriotzaren
gainean botere osoa balu bezala.

—Orain emadazu muxu oinetan!

Bittorrek ustekabeko hotzikara bat sentitu
zuen, ilunpean zegoen atarian tenperatura bat-
batean jaitsi izan balitz bezala.